

26/2017 Foru Dekretua, abenduaren 19koa, zerbitzuen erabiltzaileen gehieneko ekarpen ekonomikoak onartzen dituen eta aldatzen duena ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa.

(2017ko abenduaren 29ko GAO)

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

Ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretuaren bidez arautzen da mendekotasuna dutenentzako foru eskumeneko arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea. Bereziki, alderdi hauek ezartzen dira: erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa erabakitzeko irizpideak, ahalmen ekonomikoaren arabera aplikatu ahal izango diren hobariak, erabiltzaileei bermatuko zaizkien erabilera libreko gutxieneko kopuruak, eta ordainduko dituzten gehieneko zenbatekoak.

Aipatu foru dekretuko 3.1. artikuluan xedatzen da gehieneko ekarpen ekonomiko horiek foru dekretu bidez onartuko direla, Gizarte Politikako Departamentuak proposatuta.

Hori horrela, foru dekretu honen helburua da Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoak eguneratzea.

Aldi berean, murriztu egiten da eguneko arreta zerbitzuen ekarpena kalkulatzeko kontuan hartu beharreko errenta portzentajea, bai mendekotasun egoeran dauden adinekoentzat, bai desgaitasuna duten pertsonentzat, eta baita gaixotasun mentala dutenentzat ere.

Horrela, Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua.

1. Onartzen dira ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretuko 2. artikuluan aipatzen diren zerbitzuetarako erabiltzaileen gehieneko ekarpen ekonomikoak, foru dekretu honen eranskinean jasotzen diren zenbatekoetan ezarri direnak.

2. Oraindik ere apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretua indarrean jarri aurretik ezarritako ekarpen ekonomikoa duten erabiltzaileak 2017. urtean egiten ari diren ekarpen ekonomikoari % 2,2ko gehikuntza aplikatzen zaio.

2. artikulua. Aldatzea, ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa.

2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, xedapen hauek aldatzen dira 15/2015 Foru Dekretuan:

Bat. Honela idatzita geratzen da 27. artikulua:

«27. artikulua. Ekarpen ekonomikoa zehaztea.

Eguneko arreta zentroen erabiltzaileak egin beharreko ekarpena, formula hau aplikatuta ateratzen dena izango da:

Errenta indibidualaren % 35/264 = erabiltzailearen ekarpena.

Azalpena:

Errenta indibiduala: 10. artikuluan definitua.»

Bi. Honela idatzita geratzen da 29. artikulua:

«29. artikulua. Ekarpen ekonomikoa zehaztea.

Eguneko arretako zentroen eta errehabilitazio psikosozialeko zentroen erabiltzaileek egin beharreko ekarpena, formula hau aplikatuta ateratzen dena izango da:

Errenta indibidualaren % 35/220 = erabiltzailearen ekarpena.

Azalpena:

Errenta indibiduala: 10. artikuluan definitua.»

Amaierako xedapena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau 2018ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

ERANSKINA

GEHIENEO EKARPEN EKONOMIKOEN ZENBATEKOA	
ADINEKOENTZAKO ZERBITZUAK	
1. zenbatekoa. Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako egoitza zentroak.	
1.1. zenbatekoa. Unitate psikogeriatricoa.	68,53 €
1.2. zenbatekoa. MBBn 3. eta 2. graduan baloratutako pertsonak.	68,53 €
1.3. zenbatekoa. MBBn 1. graduan baloratutako pertsonak.	54,80 €
1.4. zenbatekoa. Autonomoak edo mendekotasun egoera baloratu gabekoak.	45,00 €
2. zenbatekoa. Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroak.	
2.1. zenbatekoa. Laneguneko zerbitzua.	16,50 €
2.2. zenbatekoa. Jaieguneko edo asteburuko zerbitzua.	16,50 €

BURUKO GAIXOTASUNA DUTENENTZAKO ZERBITZUAK	
3. zenbatekoa. Buruko gaixotasuna dutenentzako etxebizitzak eta egoitza zentroak.	
3.1. zenbatekoa. 1. taldea. Laguntzadun etxebizitzak.	14,67 €
3.2. zenbatekoa. 2. taldea. Egoitza unitateak.	20,24 €
4. zenbatekoa. Errehabilitazio psikosozialeko eguneko zentroak.	
4.1. zenbatekoa. Errehabilitazio psikosozialeko eguneko zentroak.	8,78 €

EGOITZA UNITATE SOZIOSANITARIOAK	
5. zenbatekoa. Egoitza unitate soziosanitarioak.	
5.1. zenbatekoa. Egoitza unitate soziosanitarioak.	34,19 €

DESGAITASUNA DUTENENTZAKO ZERBITZUAK	
6. zenbatekoa. Desgaitasuna dutenentzako egoitzak eta etxebizitzak.	
6.1. zenbatekoa. Laguntza zabaleko eta orokorreko egoitzak eta etxebizitzak.	56,79 €
6.2. zenbatekoa. Laguntza zabaleko etxebizitzak.	45,70 €
6.3. zenbatekoa. Laguntza mugatuko etxebizitzak.	36,14 €
6.4. zenbatekoa. Aldizkako laguntzako etxebizitzak.	25,06 €
6.5. zenbatekoa. Egoitza zerbitzua duten heziketa bereziko zentroak.	25,06 €
7. zenbatekoa. Desgaitasuna dutenentzako eguneko zentroak.	

7.1. zenbatekoa. Laguntza zabaleko eta orokorreko eguneko zentroak.	10,85 €
7.2. zenbatekoa. Laguntza mugatuko eta zabaleko eguneko zentroak.	8,78 €